

## ZOKOA

### LAPURDI

Zokoa Ziburuko auzoa da, Donibane Lohizuneko badiaren mutur batean dagoena. Bere ipar-ekialdean, Zokoako itsasargiaren inguruan, Euskal erlaitza deritzon kostaldea dago.

Etimologiari erreparatuz, izenak lapurteraz txokoa erran nahi du, hots, Donibane Lohizuneko badiaren txokoa.

Zokoa Ziburuko herriari loturik egon da betidanik (1603an bereizi zen Ziburu Urruñako herritik). 1638an Zokoako portuan, eta XVIII. mende hasieran Zokoako gotorlekua Henrike IV.a Frantziakoaren aginduz eta Vaubanek egindako proiektuaren arabera eraiki zen. Napoleon III.ak ere ekarpen positiboa egin zuen kai-muturrak jarri baitzituen Donibane Lohizuneko badia babesteko. 420m luzeko dikea Zokoatik abiatzen da, erdikoa (Artha) 250m-koa da, eta hirugarrena iparraldera, Santa Barbara lurmuturretik abiatuta, 180m-koa. Bigarren Mundu Gerran alemanek portu horretan itsaspekoen base bat jarri zuten.



Egileak: Markel Torres, Uma Mendizabal eta Andrea Gutiérrez

# LAPURDI



ZOKOA